



3 INAUTERIAK

Euskal Inauterietako entseguak hastear

Hilabete baino gutxiago gertatzen da inauterietarako eta mozorroa prestatzen hasi beharra dago. Inauteri astekolarunbatean Munduko kulturaren jaialdi handia izango da eta Euskal Inauteriak konpartsa, berriz, igandean aterako da. Aurten Ttakun K.E.-ak antolatuko du lehenengo konpartsa eta guztia inauteriko iganderako prest izateko, bihar hasiko dira entseguak.

4-5 ELKARRIZKETA

Pedro Arteaga baserritarrarekin solasean aritu gara

Telleri baserriko Pedro Arteaga baserritar lanetik bizi den lasarteoriatar gazteena da, eta barazkiak salduaz bizimodua ateratzen duen bakarra. Barazkiez gain, behi eta txerriak ere badauzka, txekor eta txerrikumeak hazteko. Asteazkenero jaisten da baserrietik plazara baratzeako produktuak saltzeko eta udaberri-uda garaian larunbatetan ere bai. Telleri baserrian egon gara eta baserritarrak berak eman digu bere bizimoduaren berri.



Buruntzaldea IKT-n errendimendu taldean aritzen diren neska-mutilak irribarretsu, Borja Apeztegia entrenatzailea (beltzez) alboan dutela.

Maila altuko igerilariak herrian Errendimendu eta parte-hartze ligako lehen jardunaldia lehiatu dute

Lasarte-Oriako igerilekuan egin da Gipuzkoa mailan antolatzen den Errendimendu eta parte-hartze ligako lehen jardunaldia. Buruntzaldea IKT taldeko igerilariak ederki aritu ziren, marka txukunak eginez txapelketa ikustera hurbildu ziren herritarren askoren aurrean.

Itxura ederra hartu zuen larunbata arratsaldean Lasarte-Oriako udal igerilekuak. Gipuzkoa osotik etorritako Tolosaldea, Ordizia, Hernani, Igartza, Fortuna, Easo eta Buruntzaldea taldeak lehian ikusteko aukera izan zuten herritarrek, goi-mailako kirol ikuskizunarekin gozatuz.

Buruntzaldea IKT, etxean

Herriko igeriketa taldeari egokitu zitzaion asteburuan, kronometratzaileak bilatu, harmailak ezarri eta oro har, antolakuntza lanetan aritzea. Halere, igerilari lasarteoriatarrek izan zuten euren dohai-

nak erakusteko aukera. Guztira 16 gazte aritu ziren zuzen, estilo eta luzera ezberdinetako 18 probetan lehian.

Honakoak izan ziren emaitzarik esanguratsuenak: gizonen 100m libreetan, Mikel Esnal (54.06) eta Iñigo Ibarburu (55.92) lehen eta hirugarren denbora onenak egin zituzten hurrenez hurren. Nesken 50m tximeleta estiloan Garazi Alkorta egin zuen krono onena (33.30) eta 200m bizkar estiloan berriz, Itsaso Tolosak (2.27.00). Aipagarria era berean gizonen 100m braza estiloan lehen hiru denbora onenak Buruntzaldea IKT

taldekoenak izan zirela: Iñigo Ibarburu (1.17.58), Mikel Soto (1.21.19) eta Kevin Iglesias (1.25.40) igerilarienak hain zuzen.

Markak hobetuz

Igerilariak 22 marka pertsonal, 12 taldeko errekor berri eta erreleboko marka berri bat lortu zituzten. Gainera, Janire Berasartek eta Ainara Garcia Infantilen Euskadiko Txapelketarako infantilen gutxienekoa lortu zuten.

Pozik mintzo zen Apeztegia prestatzailea lehiaketaren biharamunean: "Marka pertsonalez gain, orokorrean oso pozik atera ginen jardunalditik. Gure igerilariak Gipuzkoa, Euskadi edo Espainiako Txapelketak prestatzen ari dira eta egun neke handi xamarra badute ere, markak hobetu edo berdindu ahal izan zituzten eta horrek bide onetik goazela sinestarazten digu". Bi aste barru, Ordizian izango da lehian Buruntzaldea IKT.




Itsaso Tolosa igerilari aparta 200m bizkar estiloan.

ADURIZ DE LASARTE S.A

Odolkia- Solomo onizutua
Solomoa baratxuritan

Loidi Barren kalea 3 • 20160 Lasarte-Oria
Tel.: 943 361278 - 943 361655 - 943 362451



Tripakiak- Saltxitxak
Etxeko txorizoa

Txistorra

Basurde burua
Baserri pateca

BERTAKO FABRIKAZIOA

Adituak dio



Aitzol Zerain
Eskola kirola arduraduna

Kirol berri on!

Urte berria, asmo zaharrak! Horien artean topiko bat Kirola egingo dut! Eta hau nire proposamena, kirola egitea.

Ez ditut nik deskubrituko kirolaren onurak: zirkulazioaren hobe-kuntza, gizentasuna ekidin, arin eta aktibo sentitu, estresa gutxitu, gustora sentitu (endorfina fama-tuak), harremanak sakondu, ez du bukaerarik, bilatu *google*-en.

Ez pentsa ekipazio berriena edo 6.000 euroko bizikleta erosi behar denik. Banuen lagun bat, mendira joatea proposatzen nio- nean "joango nintzake, baina ez daukat mendiko botarik" esaten zidana. Gure ohituretan aldaketa batzuk egitea nahikoa da, igogailua hartu ordez eskailerak, ogia ren bila kotxez joan beharrean bizikletaz eta hortik aurrera edo- zer. Ez dugu saltzen diguten super kirolariaren eredu jarraitu behar- rik. Kirola egiteak ez du esan nahi sufritu behar dugunik, osasungar- riena kirola lasai eta patxadaz egi- tea da. Poliki hasi, ezagutu gorputza eta helburuak honetara egokitu, eta beti gozatu! Noski, urteetan kirola egin ez eta 10 orduko ibilbidearen ondoren aste- betez gorputzeko mina duzula, arrazoi emango diozu kuadrilako zirikatzaleari esateko "Estatet ba nik kirola egitea txarra dela!"

Inoiz ez da berandu baina ego- kiena txikitatik ohitzea da oina- rriak orduan jasotzen direlako. Umea nortasuna eraikitzen ari da eta kirol desberdinetan bizitako esperientziak, etorkizunean gustu- koen duena edo bere gaitasunetara hobeto egokitzen dena aukeratzeko lagunduko dio.

Ez ahaztu, helduak gara umeen eredu. Telebistaren aurrean sofan gaudela seme-alabari "utzi kontso- la eta joan lagunekin kirola egite- ra" esateak ez du arrakastarik izango.

Izan eredu, GORA KIROLA!

Kirola egiteko zapatilak

Urtarrilean igotzen da kiroldegi eta gimnasioetan baz- kide kopurua. Urteko lehen asmo berri horietako bat izaten da kirola egiten hasteara baina dirudienek helburu honetan ez gara oso zintzo ibiltzen.

Hasi bai, gogoarekin hasten gara, kirola egiteko arropa, zapatila berriak prestatu eta azkar ekiten diogu kiroldegira joateari edota korrika egiten hasteari, baina asteak aurrera joan ahala, edozein aitzakia da ona; eguraldi txarra egiten duela, erosketa batzuk egitera joan beharra daukadala, aspaldiko lagun batekin zita, nekea, buruko mina... zerren- da amai ezina osatuko genuke ziur.

Hala ere, kirola egiten disfrutatzea garrantzitsua da, gutxi bada ere, behintzat etxetik atera eta ibiltzea gomenda-

tzen dute medikuek, bizitza osasuntsuago bat nahi izateko- tan hala egin beharko genuke denek. Etxeko txikiak barne. Gure umeek nahiz eta eskolaz kanpo ekintza ugari egiten dituzten, loditzen ari dira. Kirola eskolan edo eskolaz kanpo egin ondoren etxean ordenagailu edo kontsolen aurrean orduak pasatzen dituzte. Beti daude salbuespenak baina egun ohikoa da batez ere urte sasoi honetan, kalean gutxiago jolastea. Gainera etxean bertan dute nahi dutena eta bost axola zaie kalean edota lagunekin egotea.

Haurrentzat garrantzitsua da etxean ikusten dutena, hel- duek kirola egiten badute errazago da zaletasun hori susta- tzea beraz, beldurrik ez izan, alperkeriak baztertuta aurtengoan bai, kirola egiten hasiko gara, atera zapatilak!

Hitz eta pitz

Kirolik egiten al duzu?



Sergio "Makata"

Betidanik egin izan dut goi- mailako alpinismo federa- tua. Pirinioetan asko ibili naiz, Aneto gain 3.000m- ko tontor ugari egin ditut, Picos de European asko ibili naiz eta Klimanjarro eta Elbrus mendiak igota dau- kat. Alpeak ongi ezagutzen ditut, Monte Rosso eta Mont Blanc bereziki. Orain lana dela eta ez dut denbo- riarik, Adarra eta Txindoki- rekin konformatu behar.



Luken Arkarazo

Oso kirolaria ere ez naiz kontsideratzen, baina noi- zen behin egiten dut kirola. Oraintxe bertan ez banabil ere, betidanik aritu izan naiz Usurbilgo eskubaloi taldean. Halere, Gasteizen ikasten dudanez, orain asteburutan futbol partiduak jokatzeko aritzen naiz lagunekin eta korrika egitera ere joaten naiz astean bi aldiz gutxi- nez, gehiegi gustatzen ez zaidan arren.



Martin Iparragire

Egin izan dut kirola bai: pala, esku-pilota, korrika... Lasarte-Oria Bai! krosean azken postuan helmugara- tzeke ohitura dut lagun batzuekin batera, erratzak bizkarrean ditugula. Momentuz 2013. urtean ez dut jarri kirola seriotasunez egiteko helburu argirik. Behintzat ostegunero palan jokatzeko ohiturari eusten diot eta ez da gutxi, lan asko baitaukat tabernan.



Arantxi Genau eta Raul Barreda

Orain familia osatu izanak mugatu egiten gaitu pixka bat kirola egiterako orduan... Nik (Arantxi) aerobic eta igeriketa pixka bat egin izan dut, baina kirolariago da bera, Beho- bia eta Lasarte-Oriako kro- sean atera izan da. Nire kasuan (Raul), badut mendira joateko ohitura, lagunekin Adarra eta Aizko- rri igo berri ditut esaterako.

Iruditan

Kirol zaletasuna



1957.urteko lasterketan txirindulariak ateratzeko prest.

50. hamarkadan oraindik herritarren artean gutxi batzuek zuten bizikleta. Agian arrazoi honengatik asko jarrai- tzen zen txirindularitza eta lasterketak gure inguruan ospatzen zirenean ikusle andana biltzen zen txirindulariak animatzeko. Garai hartan proba garrantzi- tsua zen Michelin lasterketa klasikoa herrian hau 1948.urteetik 1978. urtea arte ospatu zen. 1948an Michelinek txirindularitza taldea sortu zuen profes- sional mailan. Lehenengo profesiona- lentzako lasterketa izan zen eta ondoren afizionatuentzat utzi zen. Talde profesional indartsua izan zen eta taldekako garaipen asko eskuratu zuten.

Diruz laguntzen duten erakundeak

Babeslea



Lasarte-Oriako Udala

Txintxarrik ez du bere gain hartuko iritzi-artikuluetan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Laguntzailea



EUSKO JAURLARITZA
KULTURA SAILA



GFAko Kultura eta
Euskara Departamendua

Argitaratzailea:

Ttikon Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
20160 Lasarte-Oria
943 366 858/943 371 448
G-20407557

Legezko gordailua:

SS513/93
ISSN: 1134-0053

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Aleak zenbakiko: 7800

txintxarri

Erredakzioa:

Nerea Eizagire, Jon Altuna I.,
Maider Azurmendi, Jon Altuna E.
txintxarri@txintxarri.info

Publizitatea eta administrazioa:

Arantza Artola
publizitatea@ttakun.com
administrazioa@ttakun.com

Laguntzaileak:

Unai Muñoz, Gorka Lasa,
Ane Labaka, Mailu Arruti,
Asier Odriozola, Jone M.
Hernandez, Oihana Salazar,
Pako Aizpirtarte, Edu Galardi

Informatikoa:

Xabier Amadoz

INAUTERIAK



Euskal Inauteriek kolorez beteko dute berriro ere inauterietako igandea. Horretarako, entseguak bihar hasiko dituzte.

Euskal Inauterietako entseguak bihar hasiko dira

Lehenengoz, Ttakun kultur elkarteak antolatuko ditu

Hilabete baino gutxiago geratzen da inauterietarako eta mozorroa prestatzen hasi behar da. Larunbatean Munduko kulturen jaialdi handia izango da eta Euskal Inauteriak konpartsa, berriz, igandean aterako da. Aurten Ttakun K.E.-ak antolatuko du lehenengoz Euskal Inauteriak konpartsa eta guztia inauteriko iganderako prest izateko, bihar bertan hasiko dira entseguak.

Otsailaren 6 eta 13aren bitartean Inauteriak ospatuko dira. Gure herrian asteburu horretan munduko kulturak izango dira nagusi.

Baina honetaz gain gure herrian ohitura legez, Euskal Inauteriak konpartsa ere aterako da igandean.

Aurten lehenengoz, Ttakun kultur elkarteak antolatu-

ko du Euskal Inauterien konpartsa.

30 urtean dantza ikuskizuna antolatzen aritu den aldeak iaz Ttakunen esku utzi zuen konpartsa. Felix Telleriak aipatu zuen legez, "Gu ez gara elkarte bat, ez ezer. Hiru gara eta pentsa jada, 70-80 urte dituzte besteek. Ttakunek, gainera, indar gehiago emango dio eta hori pentsatu genuen.

Okerrena guk utzi eta amaitzea izango litzateke eta".

Entseguak

Eta hau gerta ez dadin, Ttakunek entseguak antolatu ditu, bihartik aurrera. Hauek asteartean izango dira Sasota ikastetxeko gimnasioan.

Antolatzaileek aipatu digutenez, urtarrilaren 15 eta 22an 20:00etatik 21:30era izango dira eta urtarrilaren 29 eta otsailaren 5ean, 19:30etik 21:30era.

"Bi azken saio hauek ordu erdi lehenago hasiko dira haurrei begira", adierazi dute antolatzaileek.

Era berean, herritar guztiei konpartsan parte hartzeko gonbita egiten diete.

NEGUKO IKASTAROAK

Izena emateko epea zabalik

Manuel Lekuonako neguko ikastaroetan izena emateko aukera zabaldu zuen ostiralean. Ohi bezala kultur etxeko ikastaroen eskaintza zabala da eta gustu guztietako ekintzak aurki daitezke hala nola, argazkigintza, bollywood, txalaparta, biodantza, risoterapia, manga komikigintza, pokerra, funky, zeinuen mintzaira, puntu eta patchwork eta jarreak zaintzeko prestakuntza ikastaroa.

Izena ematea urtarrilaren 23a bitartean egin ahal izango da www.lasarteoriasarean.eu gunean. Ikastaroen data eta ordutegiak ere orrialdean aurki ditzakezue dituzue. Ikastaroen kostari dagokionez aurtengoan errodatutakoentzat 27,35 eurokoa izango da eta herrian errodatuta ez daudenentzat berriz, 48, 16 euro.

Ikastaro guztietan ikasle kopurua mugatua da eta ahalik eta azkarren izena ematea gomendatzen da. Bestetik, ikasleak erosi beharko du ikastaroan erabiliko duen materiala eta eskaintzen diren ikastaroak hastapenekoak direla azpimarratzen da Manuel Lekuona kultur-etxetik.



Juan Antonio Pedraza zorteko herritarra Ana Belen Molina dendako arduradunarekin.

OGI-BERRIKO SARIA

Juan Antonio Pedraza irabazle

Pablo Mutiozabal kalean dagoen Ogi-Berri okindegiak "El Niño"-ko loteriarekin zozketatzen zituen 1.500 euroak Juan Antonio Pedraza herritarrentzat izan dira. Ostiralean, jaso zuen zortekoak bere saria eta ilusio handia egin diola onartu zuen. Ospatzeko bazkari bat egingo duela ere aipatu zigun.

KULTURA

Zinema saioetarako bonoak salgai

Lasarte-Oriako Udaleko Kultura sailak zinema saioetarako bonoak jarri ditu.

Bonoek hamar saioetarako balioa dute eta haurrentzako, zein helduentzako zinema emanaldietarako dira. Haurren bonoak 25 euro balio ditu. Helduen kasuan, berriz, osteguneko bonoa 35 eurotan dago ekuragarri eta igandekoa, 45 eurotan.

Bono hauek astelehenera ostiralera erosi daitezke Manuel Lekuona Kultur-etxean arratsaldeko 17:00etatik 20:00etara. Bonoak 2013ko abenduaren 31a baino lehen erabili behar dira.

ISLADA EZKUTATUAK

Testigantza bila

"Islada Ezkutatuak" taldea Lasarte-Oriako 1936ko gerra eta ondorengo urteetako oroimen historikoa jaso nahi du eta haien lehenengo lana adineko pertsonen testigantzak jasotzea da. Beraien ustez, "asko dira herrian baruruan gorde dutena kontatzeko prest daudenak". Garai haiek gogoratu eta kontatu nahi dituzten herritarrek taldeko kideekin jarri daitezke harremanetan 695 756 556 zenbakian.

HISTORIA

Sagardiaren bideo historikoak Lasarteoriasarean

Lasarteoriasarean web orrialdeak Julian Sagardiak egindako "Lasarte xarmanta" bideo bilduma aurkezten digu. Bost bideo dira eta herriko historia berreskuratzen saiatu da hauek. "Lasarteko hilerria", "San Pedro Parrokiko Erretablo zaharra" edo "Bugati. Automobil-zirkuitua" dira batzuk. Julian oso eza-guna da Lasarte-Orian. Manuel Sagardiaren semea da eta Gure-Etxea tabernako jabea izan da urte askotan.

Txartela bakarra tren ordaintzeko

Urtarrilaren 8tik aurrera, Lurraldebusko Txartel Bakarra erabili ahal da Euskotreneko Lasarte-Oria-Hendaia tren lineko txartela ordaintzeko, beti ere, txartel berezia ez bada.

Euskotrenek eta Foru Aldundiak azaldu legez, autobusaren antzera, geltokietako edo gairekuekako sarreran eta irteeran dauden makinatan pasa behar da txartela.

Honetatik automatikoki dagokion diru kopurua murriztuko da. Kasu honetan, bidaiaren prezioa Eusko Treneko Bono 10a ordainduz gero izango litzatekeen tarifaren kopuru berdina izango da. Esate baterako, Donostiako Amara geltokira bidai bakoitza 0,96 eurotako izango litzateke eta Hendaia, berriz, 1,55 euro.

Honetaz gain, urtarrilaren 22tik aurrera, Bilbao-Donos-



Lurraldebusko txartela erabili daitezke Euskotreneko Lasarte-Oria-Hendaia ibilbidean.

tia linean Elgoibarrerainoko tiketa ere modu honetarako ordaindu ahalko dela jakitera eman dute.

Probaldi hau martxoaren 4an bukatuko da, Gipuzkoako garraio publikoko tarifak bateratzearrekin batera.

Txartel bakarra

Gipuzkoako Foru Aldundiak

garraio publikoak ordaintzeko txartel bakarra egon zedin, Lurraldebus txartela jarri zuen martxan.

Lehenik autobus zerbitzuetan jarri zen zerbitzua eta proba desberdinak egin dituzte garraio bide ezberdinetan ezartzeko. Esate baterako, Renfe edo taxiaren txartelarekin ordaintzeko aukera dago.

Pedro Artega Baserritarra

“Baratzean dagoena ekartzen dut”

■ Asteazkeneko merkatura jaisten da barazkiak saltzera urte osoan ■ Okelatarako txekorrak eta txerrikumeak ere hazten ditu Telleri baserrian ■ Baserritik bizi den herritar gazteena da

Telleri baserriko Pedro Artega baserriko lanetik bizi den lasarteoriatar gazteena da, eta barazkiak salduaz bizi den bakarra. Behi eta txerriak ere badauzka, txekor eta txerrikumeak hazteko. Urte guztian jaisten da asteazkeneko baserritik plazara baratzeako produktuak saltzeko eta udaberri-uda garaian larunbatetan ere bai. Telleri baserrian egon gara eta base-rritarrak berak eman digu bere bizimoduaren berri.

Jon ALTUNA IZA

Pedro Artega baserritarra azaldu digunez, nabari da krisia herritarren artean eta salmentak gutxi egin dira. Udan, baratzean denarik dagoenean, asteen bitan etortzen da baserritik Lasarte-Oriara, asteazken eta larunbatetan. Orain neguan, aldiz, asteazkenetan bakarrik, zuzen zuzenean, bere etxeko produktuak saltzera. Garaian garaikoa saltzen du, egunean baratzean daukana. Neguan neguko produktuak.

Dena etxekoa saltzen al duzu?
Bai, den dena etxekoa. Daukadana eta kitto.

Zer moduzkoa da, oro har, baserritarren bizitza?
Ona, lana egin behar, baina osasuntsua da.

Zer moduz zabilazte salmenten aldetik?
Jaisten ari dira, arlo guztietan. Azken urtean salmentak gutxi egin dira nabarmen batez ere larunbatetan.

Merezi al du egiten duguan lan eta ahalegin handiak?
Merezi du, baina, horrela, zuzenean saldata.

Aspalditik jaisten al dira Lasartera saltzera zuten etxekoak?
Bai, nire ama zena ere jaisten zen esnearekin. Amona ere bai.

Baserritik bizi zarenen gero eta gutxiago zarete, zerbaiten seinale da hori, ezta?
Bai, baserritik bizi den gazteena ni naiz Lasarte-Orian. Merkatura jaisten den bakarra ere bai. Asteazkenetan egoten den bestea Zubietakoa da. Beste hiruzpatalu baserritar behi esnearekin ari dira, baina berdurekin inor ere ez.

Lehen baserri guztietan zen esnetarako behiren bat...?
Bai, inguruko denetan, baina, jakina, lan asko du eta gutxi pagatua...

Laguntzarik jasotzen al duzue baserritarrek?

Bai, zer edo zer jasotzen da. Pixka bat.

Eta baserritarren sindikatuek laguntzen al du?

Ez gehiegi, bazkidea naiz baina ez diet kaso handiegirik egiten.

Zer nolako bezeroak dituz?

Fijoak. Bezero onak ditut, gehienak edadekoak, gazterik bat ere ez. Ume txikiak dauzkaten gazte batzuek etortzen dira, baina gainerakoan inor ere ez.

Supermerkatura joango dira...

Nik ez dakit herri honetan zer jaten den. Edadeko horiek joaten direnean, kitto.

Dendetara denetarik heltzen da kanpotik urte guztian ...

Kanpoko aukera handia dago, eta dena da, banan banan, itxuraz oso ona, gainera. Kalitatez ez baina presentzia ikaragarria, hemen ez bezalako.

Horrek kalte egin al dizue, erosleak merkeka jotzen al du?

Kanpokoak ez dira merkegoak, dendetan ez dute guk baino merkeago saltzen, baina...

Zer da gehiena saltzen dena?

Udaran, batez ere tomatea, letxuga, baina, pipermin txikia (gindilla)... Neguan neguko produktuak.

Eramandako dena saltzen al da?

Beti sobratzen da zerbit, baina txerriek azkar jaten dituzte sobratutako guztiak.

Nabartzen da krisia, beraz...

Udan eta larunbatetan asko jaitsi da benta, asteazkenetan oraindik ondo saltzen dugu.

Zuen kalitatea nabarmenduko duzue, etxekoa eta ona...

Ona... beno, etortzen dena. Ona dagoenean ona eta txar-xeagoa dagoenean txar-xeagoa. Prezioarekin konpondu behar.



Bezero onak, betikoak dituela aitorren du Pedro Arteaga, eta gazte gutxi erosten dituela baserriko produktuak.

Neguan porruak, azak, azenarioak,... neguko produktuak izaten ditugu. Gero, udaberri eta udan, denetarik, barazki guztiak aukeran.



Txekorrak eta txerrikumeak hazten ditu etxeko eta inguruko belardietan.

Arazorik izaten al duzue eguraldiarekin?

Urtero izaten da zerbit. Uda-berrian euria eta hotza egiten badu kalteak izaten dira, beti izaten ditugu, galera handiegia ere ez dira, baina...

Negutegi ederrak daukazue eguraldiari aurre egiteko?

Lehen etxe aurrean geneukan eta ia azko martxoan aldatu genuen lekuz. Guk lurrean landatzen dugu, ez dugu hidropnikorik eta horrelakorik jartzen negutegian, baina lehengoa 17 urtean leku berean egon zenez lurra nekatu egin zen eta azkeneko ez zuen ia ematen. Beraz, han genuena kendu eta orain hemen jarri dugu. Plasti-kozkoa da.

Neguan porrua, aza batzuek, azenarioa... neguko gauzak jartzen ditugu, baina uda aldean denetarik izaten dugu etxean.

Udaberrian, batez ere uda hasieran, egoten da berdura aukera aukeran. Negutegian tomatea, piperra eta baina izaten dugu eta kanpoan, patata, kalabazin, letxuga eta abar.

Abereak ere badituzue, behiak eta txerriak. Buru asko al dira?

70-75, behi eta txekor. Etxezarreta harategian urte osoan hemengo okela saltzen da gehienean. Ia astero hiltzen dugu txekoren bat eta batzuetan bi. Urtean 35 txekor inguru, etxean hazitakoak.



Baserritik bizi den lasarteoriatar gazteena da Pedro Artega eta barazkiak merkatuan saltzen dituen herritar bakarra.



Negutegietan tomatea, piperra eta baina jartzen dute udan. Kanpoan, bestek beste, patata, letxuga eta kalabazina.

Lehen bazuenazuen esnetarako behi batzuek?

Bai, 30 behi baino gehiago. Esnea jaitzeko makina banuen, baina exigentzia asko zuten horrek. Dena ondo eramanen zaila zen, barazta, esne behiak... eta utzi egin nuen.

Eskola utzi zenuenetik ari al zara baserrian?

Eskola utzi eta probatu nuen kanpoan, bizpahiru lanetan, baina 18 urte nituenetik baserrian ari naiz lanean.

Honek gustatu egin behar du, gustatzen ez bazaizu ez duzu jateko adina ere aterako. Jai eta aste lanean lau peza ateratzeko... ez bazaizu gustatzen jai daukazu.

Lana oso lotua bada, ezin da utzi asteburuan ere...

Bai, beti eman behar zaie jaten.

Oporrik hartzen al duzu?

Pixka bat egiten dugu. Duela lau urte hasi nintzen urtean

15 egun hartzen, gabonetan, urtean lanik gutxien dagoen garaian. Ilobak eramanen dizkit baserriko kontuak, berak gobernatzan ditu abereak, besterik ez.

Uruti joaten al zara?

Bai hamar ordu hegazkinean, Karibe aldera. Uruti joan beharra daukagu, bertara joaten bagara segituan etortzen baigara etxera. Handik ez dago bueltzerik, han egon behar 15 egunetan.

Guraso eta aitona amonek baserritik kanpo egiten al zuten lanik?

Ez, baserrian, aita eta amak beti baserrian. Hamar senide gara eta denak baserrian aterakotik hazitakoak.

Orain, hamar horietatik bederatzitik bizi gara, baina beste zortziak kalean. Ni geratu naiz baserrian, gazteena. Bakarrik.

Beraz maiorzagoaren legearen aurkakoak?

Bai hemen *abrees*, zaharrena geratu beharrean gazteena geratu da etxean. Familia handia ginen eta denak kanpora joan ziren lanera.

70-75, behi eta txekor ditut. Hemengo, gure etxeko, okela saltzen da urte osoan Etxezarreta harategian.

Ia astero hiltzen dugu txekoren bat eta aste batzuetan bi. Urtean 35 txekor inguru, guztiak, etxean hazitakoak.

Txerriak ere badauzkat txerrikumeak hazi eta saltzeko.

70-75, behi eta txekor ditut. Hemengo, gure etxeko, okela saltzen da urte osoan Etxezarreta harategian.

Ia astero hiltzen dugu txekoren bat eta aste batzuetan bi. Urtean 35 txekor inguru, guztiak, etxean hazitakoak.

Txerriak ere badauzkat txerrikumeak hazi eta saltzeko.

Haurtzaroko zein oroitzen daukazu?

Hemen ibiltzen ginen. Oinez hasi orduko lana zegoen gure etxean. Orduan umeak ez ginen eskialtzera eta oporretara joaten orain bezela.

Joaten al zineten perretzikutara, ehizera...

Bai, hemen, inguruan.

Oraindik jarraitzen al duzu?

Zeeo. Ehizarako afizio handirik ez daukat. Gainera txarra da afizio handiegia gero baserrian lana egiteko. Etxean basaria izan eta kanpora joaten hasten baldin bazara, akabo. Ehezirik ez dago bizitzerik eta hemen ibiltzen naiz, neguan, etxe inguruan, oilagoretan.

Goizean goiz jaikitzen al zara?

Bai goizeko 6:30-19:00etan eguneru. Neguan pixka bat beranduago. Hori bai, gero bazkalosteian siesta gehiengetan. Ordubetetxo bat.

Eta zer zaletasun dituz?

Lagunekin afaltzeko elkartu... sagardotegira joaten gara askotan. Beti lanean ez gara aritzen. Gainera ez dago arlterik, bestela alpernik galtzea litzateke.

Duela lau urte hasi nintzen urtean 15 egun opor hartzen, gabonetan, lanik gutxien dagoen garaian, uruti, bestela segituan etortzen baigara etxera.

TXIRRINDULARITZA.-

Belodromo eta lokatzari adio, ongi etorri errepideari

Gipuzkoako pista txapelketarekin eman diote amaiera neguko denboraldiari, laster, errepidekoa hasiko da

Neguko denboraldia amaitutzat eman du Usurbil eta Lasarte-Oriako gaztetzoen artean osatuta dagoen Bazpi txirrindularitza taldeak. Asteburu honetan izan den Gipuzkoako pista txapelketa amaituta, errepideari begira jarri dira jada herriko txirrindulariak. Gehienak Bazpin aritzen badira ere, donostiako Fullgas edota Andoaingon ere badabil-tza zenbait txirrindulari gazte.

L arunbata eta igandean izan zuten Gipuzkoako Pista Txapelketa herriko kadete eta jubenilek Donostian. Larunbatean jazarpen proban lehiatu ziren, bakarka, eta igandean sailkapen orokorra erabaki zuten keirin eta puntuazio probak izan zituzten.

Bi kilometro egiten dituzte kadeteek jazarpen proban, eta honakoa izan zen Imanol Martinez (Bazpi) herriko parte-hartzaile bakarraren denbora: 2:52:33.

Juniorren kasuan, 3km egiten dituzte erlojuaren aurka, honatx denborak: Harkaitz Murillo 3:53:37, Xuban Errazkin 4:02:05, Julen Altuna 4:07:17, Luis Sobejano 4:19:05 eta Xabier Mitxelena 4:31:43.

Igandean erabaki zen sailkapen nagusia, baina herritar-

rrak dominen borrokatik urrun geratu ziren.

Neguko pista txapelketa

Kadete eta junior mailatan aritu dira lehian txirrindulari lasarteoriatarrek donostiako Antonio Elorza belodromoan ospatu den Neguko pista Challengean. Guztira bederatz jardunaldi osatu dituzte, eta jardunaldi bakoitzean bildutako puntuak kontuan hartuta, honakoak izan dira herritarren sailkapenak aipatutako txapelketan.

Kadete mailari dagokionez, Imanol Martinez (Bazpi) eta Iñigo Altuna (Bazpi) aritu dira konpetitzen, 24. eta 40. postuak eskuratuz hurrenez hurren.

Junior mailan berriz, ordezkari-tza zabalagoa izan



Julen Altuna (Fullgas), Luis Sobejano, Iñigo Martinez, Harkaitz Murillo eta Xuban Errazkin (Bazpi) eta Xabier Mitxelena (Andoaingo).

du Lasarte-Oriak. Guztira lau txirrindulari aritu dira pedalei jo eta su eragiten beldurra eragiterainoko peralte makurra duen belodromoan. Hona lortutako emaitzak: 10. Harkaitz Murillo (Bazpi), 13. Julen Altuna (Fullgas), 35. Luis Sobejano (Bazpi) eta 40. Xuban Errazkin (Bazpi).

Ziklokrosean ere ausart

Donostiako belodromoko

abiadura alde batera utzita, ziklokros barrutietako teknika probatu duenik ere bada herrian.

Horren erakusgarri abenduaren 30ean Ormaiztegin jokaturako Euskadiko txapelketa txirrindulari gaztetzoei lortutako emaitzak.

Kadete mailan Iñigo Altuna Bazpiko txirrindulari tre-bea aritu zen lanean, 17. postua eskuratuz. Aipatu

behar da lehen urteko txirrindularien artean 7. postua erdietsi zuela.

Jubenil mailan bi parte-hartzaile izan ziren, Xuban Razkin (Bazpi) eta Luis Sobejano (Bazpi), 28. eta 39. postuak eginez hurrenez hurren. Neguko denboraldia, oro har, udaberri eta udara inguruan izaten den errepideko denboraldirako prestaketa gisa erabili ohi dute gazteek.

SASKIBALOA.-



Del Olmo Ostadar SKT taldeko pibota saskiari begira, kontraeraso bat gauzatzeko zorian dela. Azken faserako txartela eskuratu dute.

Ostadar 44 - Orioko Ikastola 32

Eneko Marrahi eta Itziar Bermudezek zuzentzen duten kadete nesken saskibaloitza taldeak menpean hartu zuen Orioko Ikastola larunbat aratsaldean kiroldegian jokaturako partiduan.

Bermudezek aipatu zizugenez, uste baino "arazo gehiago" edukita irabazi zioten

printzipioz apalagoa zen Orioko Ikastola taldeari.

Lucero, Faustino, Uli, Lizaso, Navarro, Maiz, Del Olmo, Zulaika, Morales, Mercero eta Rodriguez-ek osaturako taldeak ez zion fin ekin neurketari eta lehen laurdenean 5 puntu azpitik amaitu zuten (4-9). Partidua nahiko berdin-

duta joan zen hirugarren laurden amaierara arte, hortik aurrera jaun eta jabe izan ziren herriko neskek, defentsa duin eta erasoan gupidagabe arituta. Bereziki aipagarriak izan ziren baloi lapurketa eta kontraeraso biziak. Azken laurdenean lortutako partziala bikaina izan zen, 14-2koa.

BOLA-JOKOA.-

Denboraldi hasiera Legazpin

Ostadar SKT-ko bola-joko taldeak 2013 urteko denboraldiari hasiera eman zion atzo Legazpin jokaturako taldekako txapelketarekin.

Ostadar SKT-ko Josean Montesekek aipatu digunez, iazko sailkapena hobetzen saiatuko dira Ostadarreko lagunak. "Baina zaila izango da. Hobekien zebilen jokalaritari, Lasari ebakuntza egin diote eta aurten ezingo du parte hartu," jakin arazi du Montesekek.

Ondorioz, taldekako txapelketarako jokalaritza baten bila dabiltzala ere aipatu digu, "normalean Lasarte-Oriko 9 edo 10 pertsonak jokatzeko dugu bola-jokoa. Baina lana dela edo ebakuntza dela, igandean bost bakarrik izango gara. Txapelketan taldeak seikoak dira, beraz, taldea osatzeko norbaiten bila gabiltza".

Eta honen harira, gazte jendea bola-jokora hurbiltzen ez dela kezkatzen da.

Hau guztiaz gain, hurrengo urtean Lasarte-Oriko Euskadiko txapelketa izango dela aurreratu digu. "Horregatik, aurtengo denboraldian, paper ona egin nahi dugu" aipatu du.

Txapelketa denboraldia

Denboraldi berria aipatu legez, igandean hasi zen Legazpin eta bigarren jardunaldia hurrengo asteburuan izango dute Hernanin.

Jarraian, bikotekako jardunaldi izango dituzte. Hori-tako bat otsailaren 10ean, Lasarte-Oriako Michelin kirolguneko bolatokia izango da.

Martxoan bakarkako txapelketekin hasiko dira. Lehenik lehendakari txapelketa izango dute eta apirila eta maiatza hasieran Gipuzkoako kopa izango dute lehian.

Azkenik, maiatzaren 18an, seniorren Gipuzkoako txapelketa izango da eta 26an, berriz, emakume, beterrano, jubenil eta infantil mailako lurraldeko lehiaketa.

Agenda

Urtarrila osoan zehar, Jalgi Kafe-antzokian



Loreak eta margoa

Naroa Etxeberria margolariaren lanak ikusgai daude. Oleoz eta akrilikoz egindako koadroek osatzen dute erakusketa. Loreak dira gai nagusia eta koadro ezberdinekin konposaketak egiten ditu. Hamar urte zituela hasi zen margotzen errenteriatar gaztea, eta bere lan gehienetan gai nagusia musika izan da.

Lasarte-Oria

Zinea

MANUEL LEQUONA KULTUR-ETXEA
Osteguna 24, 21:30ean

Ostegun zinea atalaren barruan, "Le Skylab" film frantsesa, Okendo Zinema taldearen eskutik. Sarrerak leihatilan, 4,65 euro; internetez, 4,24 euro. Gaztelaniaz.



Igandea 27, 17:00etan

Haurren zinea atalean, "Asterix al servicio de su majestad" filma ikusgai izango da. Sarrerak, leihatilan 3,60 euro; internet bidez, 3,18 euro. Gaztelaniaz.

Igandea 27, 19:30ean

Helduen zinea atalaren barruan, "Le Skylab" film frantsesa, Okendo Zinema taldearen eskutik. Sarrerak leihatilan, 5,85 euro; internetez, 5,30 euro. Gaztelaniaz.

Musika

JALGI KAFE-ANTZOKIA

Ostirala 25, 23:00etan

Lasarte-Oriako Arramazka taldearen Argilunpetan diskaren aurkezpena izango da. Sarrera doan.

Bideo-foruma

MANUEL LEQUONA KULTUR-ETXEA

Ostirala 25, 19:00etan

Sahara Herriaren Lagunak taldeak Sahara eta errefuxiatuei buruzko "Hijos de las nubes, la última colonia" dokumentalaren emanaldia antolatuko du.

Antzerkia

MANUEL LEQUONA KULTUR-ETXEA

Larunbata 26, 18:00etan

Magia eta musikaz betetako "Ali Baba eta 40 lapurrak" ipuin ezaguna antzezlan modura eskainiko du Borobil antzerki taldeak. Haurrei zuzendua. Sarrera, leihatilan 3,70 euro; internet bidez, 3,24 euro.

Astigarraga

Sagardo berria

SAGARDOETXEA

Asteazkena 16, 12:00etan

Sagardo berriaren eguna ospatuko dute. Sagardo berria aurkeztu ostean, sagarrondo bat landatuko da eta 13:45ean, Petritegi sagardotegian denboraldiko lehen kupela irekiko du Oreja de Van Gogh taldeak.

Usurbil

Erakusketa

SUTEGIKO ERAKUSKETA ARETOA

Urtarrilaren 27ra arte

Eduardo Arbeloa margolariaren lan erakusketa. Estilo desberdinetako margo-lanak eta eskulturak ikusgai jarriko ditu.

Hitzaldia

POTXOENEA ARETOA

Urtarrilaren 15ean, 19:00etan

Erradiazio elektromagnetikoei eta osasunari buruzko solasaldia eskainiko du Jose Maria Rivadeneyrak, EHUKo irakasleak eta Usurbilgo Udaleko inguru-men zinegotziak.

Herritarren txokoa

Ate irekiak Santa Teresa ikastetxean

2013-1024 ikasturterako matrikulazio epea urtarrilaren amaieran irekiko denez, Donostiako Santa Teresa ikastetxeak ate irekien jardunaldia izango duela jakin arazten du.

Urtarrilaren 15ean, asteartea, 15:30etik 17:00etara izango da eta haur txikiak dituzten lasarteoriatar guztiak daude gonbidatuak.

Korrika 18-aren arropa salgai

Korrika 18aren arropa, kamisetak, sudaderak, etab. erosi nahi duten herritarrek badute lekua. Materiala Urruzola mertzterian, Kale Nagusia 41 zenbakian, salgai egongo da euskarren lasterketa erraldioaren amaiera arte.

Korrika egiteko talde amateurrak

Herrian korrika egiteko talde amateurrak sortu nahi da. Lehenengo urratsak!! Zita, ateri dagoen astelehenean 20:00etan hipodromoko zubian. Karakol eta bareak animatu!

Zuen oharrak jarri, kexak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko:

Geltoki kalea, 4 943 366858 txintxarri@txintxarri.info

Eskutitza

Errausketa eta minbizia. Ikerketa berriak, ondorio zaharrak

Environment International aldizkariak berriki CARLOS III osasun institutuko ikerlari talde batek egindako ikerketa ezagutzera eman du. 1997-2006 urte bitartean 8.000 herritik goratan jasotako datuak erabiliz egindako ikerlanaz ari gara. 33 minbizi mota aztertu dituzte eta ondorioa garbia da. Errauste planta batetik gertu bizitzeak gehitu egiten du minbiziaren hiltzeko arriskua. Halaber errauste plantak minbiziaren eragiten duten konposatu ugariaren isurle direla diote txostenean. Dioxinak, arsenikoa, kromoa, bentzenoa... eta beste mordo bat aipatzen dira bertan.

Ez da gauza berria (eta ez da errauste plantetara mugatzen) teknologia berrienarekin aurreko teknologiak ematen zituen arazoak gainditzen direneko mito interesatua. Horrela omen zen Titanicarekin, Txernobil eta Fukushima zentral nuklearrekin, eta nola ez, belaunaldi berriko errauste plantekin. Pertsonak engaina daitezke horrelako uste faltsuekin, baina sekulan ez errealtatea. Azken hau egoskorra da eta hobe dugu hark zer dioen entzutea.

Artikulu honen helburua ez da ikerketaren alde teknikoan sakontzea. Horretan interesa daukanak honen inguruko informazio gehiago eta jatorrizkorako estekak www.zerazabor.org gure web orrian topa ditzake. Guk azpimarratu nahi duguna ondorengoa da: errausketak sortzen dituen konposatu toxiko guztiak ez dira filtroetan geratzen diren erraustetara mugatzen (Gipuzkoan urtean 14.700 tona izango lirateko hauek), konposatuak tximiniatik kanpora ere zabaltzen dira eta gure gorputzean bukatzen dute bai arnastu dugun airearen bidez, bai elikadura katearen bidez.

Hondakinak errausteak gizon-emaume guztiok inguru osasungarri batean bizitzeko dugun oinarriko eskubidea urratzen du. Administrazioak eta arduradun politikoei herritarren oinarriko eskubideak bermatzeko betebeharra dute, eta ez dute enpresa handien interesen men eginez eskubide hauek kaltetzeko zilegitasunik.

Gipuzkoan badago zehaztuta hondakinak erraustu gabe, zero zabor ere-

duari jarraiki kudeatzeko plan orokorra. Errauste plantaren proiektua behin betiko bertan behera uztea, dauden aukeretatik merkeena izateaz gain, herritarren osasuna bermatzeko modu bakarra da alor honi dagokionez. Berandu baino lehen erabaki ausartak hartzeko eskatzen diegu arduradun politikoei, errauste planta eraikitzeko kontratuak behin betiko bertan behera uzteko, eta zero zabor norabidean joateko beharrezko azpiegiturak eraikitzeko, herritarren eskubideak babestea beraien lehenengo zeregina baita.

Pilar Soberon Artista

Arte laboratorioa Aquarium-ean

■ "Ur zurrumbilotsuak" proiektuan parte hartzen ari da Pilar Soberon ■ Dhiko ibilbidean txertatu dituzte arte-lanak zenbait artistek ■ Baionako museora zabalduko da 2013an

Ur zurrumbilotsuak proiektu berezi eta berritzaileen parte hartzen ari da Pilar Soberon herritarra arte espresio ezberdinak jorratzen dituzten beste artista batzuekin batera. 2012ko udaberrian hasi ziren lanean Donostiako Aquarium-ean, 2013an segituko dute eta laster Baionako Euskal Museora ere joango dira. Momentuz beirate batean badia margotu du Pilar Soberonek, haziakin mural handi bat sortu du eta fosilen artean marrazkiak txertatu ditu. Prozesu irekia da, etengabe garatzen ari da, uneoro aldatzen eta ez dauka amaiera, helburu eta data jakirik. Epe luzeko ikusmira duen proiektua da Nekane Aranburu gasteiztarrak sortu eta bultzatu duen arte espresio ezberdinen laboratorioa.

Jon ALTUNA IZA

Aquarium-eko ohiko ibilbidean txertatu da "Ur Zurrumbilotsuak" Nekane Aranburu komisario gasteiztarrak sortu eta gidatu duen arte proposamena. Zerbait artistek beren lana erakusten dute arrainontzi eta museoko beste espazioen ondoan.

Pilar Soberon lasarteoriatarren iritzi oso proiektu erakargarria da, "arte lanaren aberastasuna bidean dagoelako, sortze prozesuan gertatzen den guztia da interesgarria". 2012ko udaberrian hasi zen lanean Aquarium-ean, marrazkiak egiten, orain bideoak grabatzen ari da eta ez daki zertan amaituko den proiektua.

Esan daiteke bizitzera joan dela Aquarium-era, ordu asko pasa ditu bertan, instalakuntza eta eguneroko zereginak ondo ezagutzeko zortea izan du, ez bakarrik ikusten dena, baizik eta atzean dagoena ere bai.

Proiektu bizia

Arrain, langile, biologo, ikusle eta espazioekin harremanetan daude artistak eta arte lanak. Proiektu bizia da, "Ez da bakarrik han koadro bat zintzilikatzea, bertan dagoenarekin prozesu bat sortzea baizik" adierazi digu Pilar Soberonek. Oso gustura ari da: "Aukera bikaina eskaini digu Aquarium-ak eta bertako langileek oso jarrera irekia daukate gainera".

Bi urteko esperientziaren bigarren fasean daude. Hasteko bi hilabetetan ia arratsaldero, modu bitxian marraztera joan zen Soberon Aquarium-era, "paperera begiratu gabe". Gero, marrazki horietan oinarrituta beste hiru esku hartze egin ditu, beiratea, sei metroko murala eta fosilen arteko marrazkiak.

Soilik modeloari, aurrean daukazanari arrain edo noiz-behinka pasatzen zen ikusleari begira egindako marrazki horiek "askoz askeagoak", testimonio edo lekukoak izan dira beretzat. Umeentzako ikastaro bat eman zuen irailaren 11n, teknika bera erabiliz.

Murala haziakin

Marrazki horietako baten zati bat eskala handian erreproduzitu eta gramineen haziak itsatsiz mural bat osatu zuen gero. Besteak beste, haurren laguntza izan zuen horretarako Soberonek.

Marraren ordez haziak ageri dira marrazoen arteko liskarra irudikatu duen marrazkian. "Esperientzia oso polita izan zen, ni lasai ari nintzen marrazten, eta marrazoak borrokan. Badirudi arrinek, bakean, Aquariumean ez dutela ezer egiten baina bakoitzak bere ordua, tokia eta bizitza du".

Beiratea eta fosilak

Beste arte lana beirate handi batean egin zuen, leihotik ikusten den "Donostiako badia ezaguna" marraztu zuen eta azkenik, marrazki batzuek jarri ditu fosilen artean. Ikusle askok pentsatzen du beste garai batekoak direla baina duela gutxi paper marroian egindako marrazkiak dira. "Artearen muga hori hausten da, artea kamuflatu dago aspal-diko fosilen artean".

Beiratean marraztutako silueta, haziakin egindako murala eta fosilen arteko marrazkiak Aquarium-ean ikusgai egongo dira ondorengo hilabetetan ohiko sarrera ordainduta. Arte lanak ondo izendatuak



Silueta marraztu zuen Pilar Soberonek Aquariumeko leiho handi bateko beiratean.



Pilar Soberonen Trilobitae, paper marroian egindako marrazkiak, fosilen artean.



daude, zerrenda, proiektua zertan den azaltzen duen idatziak, eskuorri eta gidatxo bat prestatu dute, mapa gisakoa, ikusleek jakin dezaten arte lanak non dauden.

Pilar Soberon lasarteoriatarren lanekin batera, beste artista batzuek ere parte hartzen ari dira proiektuan: besteak beste, Marisa Gonzalez bilbotarra, Fabiana Barredo argentinarra, Francisco Ruiz de Infante gasteiztarrak eta Begoña Egurbide kataluniarra.

Arte-laboratorioa

Nekane Aranburuk arte-laboratorio deitzen duen proiektua etengabe aldatzen ari da, arte lan edo bideo berriak gehitzen dira noizbehinka eta beste batzuek kendu egingo dira. Aldatuz doan erakusketaren proposamen artistikoa da.

Denen lana iruditu zaio erakargarria Soberoni, denek, berak bezala, berbera lantzen dute-

lako, ikuslearekin eta bertako ekosistema-animaliekin interakzioa.

Sormenari irekia

Proiektuak Baionako historiaren museoa jarraituko du, baina egun ez daki Soberonek han zer egingo duen, ezta Donostian ere. "Zerbait asmatu edo sortuko dugu". Urtarri-lean bilduko dira berriro artistak eta pentsatuko dute nondik jo, zeintzuk izango diren hurrengo pausuak, non proiektatuko den zer,...

Orain, bideoak grabatzen ari da Aquarium-en "bere erritmoan ari da eratzten, marrazki eta bideoak nahasten dira eta ez dakit zer aterako den. Agian ez da bideoa izango, oso irekia nago sormenari, sortu daitekeenari".

Esker oneko hitzak ditu Soberonek Aquarium-arentzat: "Horren proiektu berezia marrazten jarzea eskertzen diot, ez dauka parekorik. Nekane Aranburu izan da guztia pentsatu eta artea tratatzeko, erakusteko eta esperimentatzeko beste modu hau bultzatu duena. Artea dena eta ez dena nahasten dira hemen".

Aquarium-a da Guggenheim-aren ondoren ikusle kopuru aldetik Euskal Herriko bigarren museo bisitatuena. Ikusle asko joaten da bertara eta oso har gustura ikusi ditu. "Asko marrazoak ikustera doaz soilik. Hori bakarrik daukate buruan. Beste batzuek, fosilak, eta museoko beste hainbat gauza interesgarri ikustera joaten dira. Marrazoak baino gehiago nahi duenak aurkitzen du".

Arte-irakasle

Pilar Soberon irakaslea da, Batxilergo artistikoan klaseak ematen ditu. "Momentuz. Gaur egun ez dago zertan ziurtasunik eta honetan ere ez. Esaten dute desagertuko dela baina espero dut ez desagertzea eta horretan segitzea, bestela jai daukagu, artearentzat ez dago eta dirurik. Gutxiago horrelako proiektuak eginda".

Etorrizunera begira, tamaina edo eskala handiko marrazkiekin segitzeko asmoa dauka Soberonek, "asko interesatzen zait, zeren tamaina horietan ikusleak eta bere itzala marrazki barruan sartzen dira. Nik egindako paisaia handi horietan ikusleak ibili daiteke gora eta behera".